

Noaua!!



“Erreleboa” antzerkirako sarrerek agortu egin dira

THC martxoak 17
21:00 etan
SORKUN
LOQUILLO
Y TROGLODITAS
CHAMBAO
PAL KELI

martxoak 18
21:00 etan
MORODO
& RANKING SOLDIERS
BERRI TXARRAK
CELTAS CORTOS
BETAGARRI
HAMLET

SAGARRONDOTIK

Has dadila festa

Auto Guria



Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tarteak

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Usurbildarrentzat eginiko webgunea

Udaberria Urtinean

Zatoz

eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi
zein lorategia



Urtinea Lorategia

San Esteban bulego
☎ 943 363 258 • Faxe: 943 363 054
E-mail: urtsu@lurakal.net

Txirrikitutik !!

1 998ko martxoaren 14a egun garrantzitsua izan zen NOAUA! Kultur Elkartearentzat. Elkarreak eta herriko 18 taldek elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten. Dagoeneko zortzi urte pasa dira. Eta hitzarmena zertarako? Informazio trukaketa, antolatzen zituzten ekintzen berri eman, bilera deialdiak... Orokorrean, taldeekin zerikusia zuten edozein informazio argitaratzeko konpromisoa hartu zuen NOAUA! K.E.-ak. Taldeek berriz, ahal zuten laguntza ematera konprometitzen ziren (bazkideak eginenez, dirulaguntzak ematen...).

Kale Nagusian zegoen NOAUA! Kultur Elkarteko egoitza zaharrean hitzarmena sinatu zuten taldeak hauek izan ziren: Aitzaga Kultur Elkartea, Amnistia Aldeko Batzordea, Andatza Kultur Kirol Elkartea, Elkarri, Euskal Herrian Euskaraz, Guraso Eskola, Jarrai, Odol Emaileen Elkartea, Sagardo Egunaren Lagunak, Usurbilgo Futbol Taldea, Usurbilgo Pilota Elkartea, Usurbil Intsumitua, Ziortza, Zubieta Elkartea eta Zumarte Musika Eskola. Argazkian berriz, hitzarmenean parte hartu zuten taldeetako ordezkariak ageri dira: Garikoitz Udabe, Olatz Altuna, Mikel Bengoetxea, Joxe Mari Irazusta, Mertxe Aizpurua, Maria Jesus Astigarraga, Imanol Zaraus, Itzalai Pikabea, Zaloa Arnaiz, Andoni Sagarna (NOAUA! K.E.-ko lehendakari ohia), Aitor Pikabea, Xabier Pagola, Juanjo Elkorro, Irati Miguel, Xabier Arregi, Andoni Atxega eta Roman Manterola.

Zaloa Arnaiz Iburguren



1998-03-14, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitza zaharra, Kaleberri
Noaua!K.E.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

JOSE LUIS ARTOLA, DYA-KO BURU _____ **5. OR.**

MARTXOAREN 9KO GREBA DEIALDIA _____ **6. OR.**

SAGARRONDOTIK JAIALDIA _____ **7. OR.**

Musika eta sagardoa. Horiexek dira Sagarrondotik jaialdiko osagai nagusiak. Baina bada beste ekitaldi erakargarri bat ere. Herri kirol lehia. Usurbildarrak lan txukuna egiteko gogoz dira.



ANTZERKI SAIORAKO SARRERARIK EZ _____ **10. OR.**

JOXE DOMINGO AIZPURUA, LARRI _____ **12. OR.**

ETORKIZUN HANDIKO TXISTULARIAK _____ **13. OR.**

NOAUA!KO BATZAR NAGUSIA _____ **14. OR.**

KIROL TALDEAK, NESKEN FALTAN _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udaia



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak
Euskal Herra!

Zutabea!



ARITZ GORRITI

Zifrak eta letrak

Zifrek kantitatea adierazten omen dute soilik. Letrek edo hizkiek alderdi kualitatiboarekin lotura estuagoa omen dute.

Askotan, ordea, kantitatea kalitateari gailentzen zaiola dirudi; bai behintzat, errealitatea nahi den edo interesatzen den bezala agertu nahi denean. Otsaila amaieran, manifestaldi batek Madrileko zenbait kale zeharkatu zituen. Antolatzaileek ia 2.000.000 herritar bertaratu zirela zioten. Beste batzuek 200.000 herritar baino gutxiagok parte hartu zutela. Antolatzaileek ziotena aintzakotzat hartuta, metro karratuko 23 edota 30 pertsonen egon behar zuten. Hori posible al da? Nire ustez, ez. Txantxetako delatzen arren, bi egun igarota, oraindik inork "ez zekien" argi zenbat manifestari zeuden bertan. Azkenean, manifestaldi hori zifra horien inguruko eztabaida hutsean geratu da. Beste behin, antolatzaileek eta horien ingurukoek zifrak gezurretan aritzeko erabili dituzte.

Hilero langabezi datuak kaleratzen dituzte alor horretan diharduten erakundeek. Sarritan, langabeziaren fenome-

noa bera zenbakiak irudikatzen dute. Kantitateak. Zifrek. Baina beste hainbestetan ahaztu egiten zaie edo ez dira aztertzen fenomeno horren zergatiak, langileak zer baldintzetan ari diren lanean... Hots, fenomeno horren alderdi kualitatiboa ez da aipatzen. Zifrak errealitate horren beste alderdi bat ezkutatzeko erabiltzen dituzte. Betiko kontua izan ohi da.

Gezurretan aritzea, informazioa "ezkutatzea"... Arestian aipatutakoak errealitatea azaltzeko erabiltzen diren bi modu eta adibide baino ez dira. Zifrek askotan bere kasa "hitz egiten" dute. Manifestaldi horretako antolatzaileek eta lan munduko erakundeek datuak eskaini behar dituztenean, zifren berri eman behar dute. Baina horiek errealitatea ezin dute desitxuratu. Salbuespenak salbuespen, zenbakiak ez lukete errealitate horretako protagonista izan behar. Letrek eman beharko liokete itxura gertakari baten azalpenari edota errealitate baten deskribapenari. Zenbakiak osatu beharko lukete hedatu nahi den informazioa.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

Ika-mika!

Orain Herria Orain Bakea

Azken asteetan gertakari larriak eman dira Euskal Herrian: dispersio politikaren eraginez bi euskal preso politiko hil dira; bizitza osorako espetxaldia ezarri nahi dute; Audientzia Nazionalak ezker abertzaleko kideen aurka hartutako neurri judizialak; eta horri guztiari, egoera salatzen burutzen ari diren mobilizazioetan jasaten ari garen eraso errepresibo eta poliziala gehitu behar dizkiogu.

Egoera larri honek arduradun politiko oso zehatzak ditu. PSOEk dispersio politikak eta, oro har, gerra eta errepresio estrategia bere horretan mantentzen ditu eta bera da gertatzen ari denaren erantzule. Dena den, Ertzaintza eta Ibarretxeren Gobernuaren ardura ere azpimarratu behar dugu.

Hori guztia Euskal Herria bizitzen ari den egoera politiko garrantzitsuenaren baitan kokatu behar da. Urteetako borroka markoen krisia eragin du, eztabaida politikoaren erdian autodeterminazioaren eta lurraldeta-

sunaren korapiloak askatzeko aukera ageri da eta horretarako ezker abertzaleak aurkeztutako Anoetako proposamenaren metodologia inoiz ez bezala herriratuta daude.

Prozesu demokratikoaren atarian gaudela esaten ari gara eta, gure ustez, horren baitan ulertu behar da azken asteetako errepresioa. Ezker abertzalea azken hilabete luzeetan mantentzen ari den iniziatiba politikoa da galera nahi dutena, prozesuaren atarian ezker abertzalea ahuldu eta ezinean dagoela irudikatu nahi dute, eta, aurrera begira gure ildo baldintzatu nahi duen gerra eta kartzela mehatxua helarazi nahi digu Espainiako Gobernuak. PNVk Estatuaren eta PSOEn kolaboratzaile zintzoa izateko prest dagoela erakutsi nahi du bere jarrerarekin.

Ezker abertzalearen borroka ireki ditu aukera berriak eta gure borroka lagunduko du egoera berriak irekitzen ere. Horregatik, Estatuaren eraso eta jarrera kolaboratzaile-

ren aurrean, ezker abertzaleak tinkotasunez erantzun eta prozesu demokratiko baten aldeko apustua berresten du. Mezu garbia helarazi nahi diegu PSOEn eta EAJri: ezker abertzalearen ildo eraso errepresiboen bitartez baldintzatu nahi izatea antzua dela.

Esan dugun bezala, ezker abertzaleak herri honek bizi duen gatazka politikoa konpontzeko konpromiso sendoa du, orain dela 16 hilabete Anoetan esan genuen bezala. Hain zuzen ere, Batasunaren eskaintza herriratzeko asmoz eta konponbide prozesuari herrietatik bultzada emateko helburarekin, hurrengo asterako mobilizazio astea prestatu dugu. Honetaz guztiaz hitz egiteko parada ezinhobe izango dugu martxoaren 22rako prestatu dugun hitzaldian. Gure artean mahaikide bat izango dugu. Beraz, guztioi luzatzen dizuegu bertan parte hartzeko gonbidapena.

Usurbilgo Batasuna

Joxe Luis Artola, DYAk presidente beste lau urtez

Gipuzkoako DYAk Bazkideen Batzar Orokorra ospatu zuen martxoaren 5ean Zarautzen. Batzar hori eta gero, Jose Luis Artolak Gipuzkoako DYA elkarte-ko presidente izaten jarraituko du. Igeldon jaioa, Usurbilen bizi da gure protagonista.

NOAUA! Batzarra nola joan zen ikusita, pozik egoteko moduan izango zara.

Jose Luis Artola. Gehiengoaren babes-a jaso genuen eta zentzu horretan, bai, pozik. Jendeak, azkenean, babes handia eman dit, alde horretatik bai.

N. Eta elkarte, DYA, egoera onean al da?

J. L. A. DYAk osasun nahiko ona dauka. Bi gauza aipatu behar dira DYAr dagokionez; bata, ekonomikoki nahiko ondo gabiltzala. Okerrago ibili gara, baina hobeto ibiltzea ere badago. Eta bestetik, gaixotasun txiki bat badugu: boluntarioen motibazioa eta ilusioa. Orain 400 bat boluntario daude, eta berez jendea badago, baina ilusio faltarekin; besteen errekonozimendu faltagatik agian. Gaur egun, boluntario izatea zaila delako agian.

Badirudi boluntario izatea pizti arraroa izatea dela, ez dago modan horrela-ko ekintzetan parte hartzea. Lehen medio gutxi eta ilusio handia genuen. Orain, berriz, medio gehiago ditugu baina ilusio gutxiago dago.

Dena den, lehen geundenak hor jarraitzen dugu, eta ikusten dugu etor-zen diren berrien artean badagoela talde bat bizitasun handiarekin datorrena.

N. Zeintzuk dira DYaren erronka nagusiak une honetan?

J. L. A. Lehenik heziketa, gure jende-ari eta orokorrean herritarrei dagokiena. Bigarrenik, osasun zaintza zerbitzuak, prebentzioa (kirol jardueretan, esaterako).

Gizarte zerbitzuetako beharrak ere hor daude. Alde horretatik lan dezente egiten ari gara, edadeko jendearekin,



JOXE LUIS ARTOLA, DYAK USURBILA EKARRI DUEN ANBULANTZIA BERRIAREN ALBOAN.

adibidez, lehengo urtean gorakada handia izan genuen era horretako lanetan.

Azkenik, osasun larrialdien laguntza edo erreskatea lan arlo bezala bermatzea.

JOSE LUIS ARTOLA

“Triste samar gaude;
Usurbilen boluntario
gutxi dago”

N. DYAk buru izatea ez da lan erraza izango?

J. L. A. Bestelako karguak ez dakit nolakoak izango diren, baina denbora gehien kendu eta satisfazio gutxien ematen duena izango da hau. Nik baneukan presidente lana uzteko asmoa. Baina jendeak dio lan handia egin dugula azken urteotan, eta jarraitzeko eskatu digute. Baina ez da lan gozoa. Onean eta txarrean, presidenteak egon behar du lehen lerroan. Baina lana, familia eta hau dena uztartzea ez da erraza. Dena den, nahi dudalako nago hor.

Hala ere, boluntarioen lana goraipatzen bada ere, hauen atzean beti familia dago. Eta familiak jendeak uste duena baino lan gehiago egiten du. Nire emazteak nire seme-alabekin egon behar du

niri zerbait suertatzen zaidan bakoitzean. Polita da, baduelako satisfazio puntu bat, baina balantza batean jarrita, ez dakit merezi duen...

N. Jendearen babes-a ez la da sumatzen?

J. L. A. Bai, kontuan hartu behar da aurrekontuaren %75a gipuzkoarren laguntza bidez datorrela. 40.000 familia dira Gipuzkoan DYarentzat laguntza ematen dutenak; haiek gabe ez genuke ezer egingo.

N. Usurbilgo DYA taldea zein egoeratan dago?

J. L. A. Betikoak gaude. Lehengo urtean bi berri sartu ziren xuabe-xuabe, baina ikastaro asko antolatu ditugu eta sarritan bertan behera utzi behar izan ditugu; jendea ez da apuntatzen baina hemen jende gaztea badago. Alde horretatik triste samar gaude. Ez da hainbesteko ahalegina egin behar. Gidaria izateko, kamioi bat gidatzeko gai den edonor sar daiteke. Batzuetan lan honek badu bere xarma, kontzertuetara joan behar izaten dugu...

Animatzea da kontua eta denbora pixka bat hartzea. Baina Usurbilen oso jende gutxi animatu da azkenaldian.

Sakabanaketaren aurkako mobilizazio eguna

Martxoaren 9a greba eta mobilizazio eguna izan zen. Ezker abertzaleak, era honetan, Euskal presoek Euskal Herriratzea exijitu eta gatazkaren konponbidearen aldeko konpromisoa berretsi nahi izan zuten. Usurbilen, greba deialdiak eragin zuzena izan zuten saltoki eta tabernetan. Lantegietan, ordea, greba ez zen erabatekoa izan.

Martxoaren 9an, saltoki eta taberna ia gehienak itxita egon ziren. Lantegietan, ordea, greba deialdiaren eragina ez zen erabatekoa izan. Hainbat enpresa lanean aritu ziren. Beste batzuk, lan-uzteak egin zituzten. Ingemarren kasua izan zen hori. 11:00etatik 13:00era eten egin zen lanaldia. Udarregi ikastolan, lanean aritu ziren baina eguerdian lan-uztea egin zen. Udaleko langileen asanbladak ere grebarekin bat egitea erabaki zuten.



EGUERDIKO MANIFESTAZIOAN IKASLE ETA LANGILE UGARI BILDU ZIREN.

Eguerdiko 12:00etan egin zen elkarretaratzean jende ugari bildu zen. Langileak eta ikasleak, bereziki.

Ez zen eguerdikoa eguneko mobilizazio bakarra izan. 18:30ean kotxe-kara-

bana ibili zen herrian zehar. Eta iluntzeko 20:00etan, beste manifestazioa bat egin zen herriko kaleetan barrena.

NEREA KORTA / IMANOL UBEDA

Aitzagaren aldeko elkarretaratzea

Joan den igandean, hilak 12, Aitzaga elkartearen itxiera salatzeko manifestazioa egin zen. Eniak ez zuen ekitaldia zapuztu. "Errepresioa ez da bidea" lelopean abiatu zen Aitzagakoek deitutako elkarretaratzea.

Itxieraren ondorioez zein Madrilgo Audientzia Nazionalen izan ziren herritarrei elkartasuna adierazi asmoz, herriko talde eta elkarte ezberdinekin bildu dira Aitzaga elkarteak azken egunetan.

Lanean jarraitzeko asmoa

Itxierak itxiera, aurrera begira, lanean jarraitzeko asmo sendoa azaldu du Aitzaga elkarteak.



EGURALDIK LAGUNDU EZ ARREN, AITZAGAREN DEIALDIA

EZ ZEN OHARKABEAN PASA.

Sagarrondotik jaialdiaz gozatzeko unea iritsi da

Iritsi da neguko jaialdirik ezagunenaz gozatzeko garaia. Sagarrondotik jaialdiak laugarren edizioa ospatuko du aurten. The Wailers, Marea, Ojos de Brujo, Fito & Fitipaldis, Orishas, Fermin Muguruza, Raimundo Amador eta Desmond Dekker izan dira aurreko hiru edizioetako protagonistak. Aurtengo eskaintzak ere, aurrekoen ezaugarriak mantentzen ditu: kolore aniztasuna, jende anitzarentzat.

Hernani izango da, beste behin ere, Sagarrondotik jaialdiko topaleku nagusia. Karpa erraldoi batek bilduko ditu musika talde hauek guztiak.

Ostiralean, martxoak 17, gaueko 21:00etan hasita: Chambao, THC, Sorkun, Loquillo y Trogloditas eta Pal Keli.

Eta larunbatean, martxoak 18, gaueko 21:00etan hasita: Morodo & Ranking Soldiers, Berri Txarrak, Celtas Cortos, Betagarri eta Hamlet.



BERRI TXARRAK TALDEAK "JAIO.MUSIKA.HIL"
DISKOA ESKAINIKO DU SAGARRONDOTIK JAIALDIAN.

Talde interesgarriak ikusteko aukera

Chambao: Flamenco-chill. Chambao taldeak egiten duen musikari ematen zaion definizioa da. Taldekideek, hasieratik, flamenkoaren eta musika elektronikoaren arteko maitasun harremana bilatu dute. Bilatu eta lortu.

Sorkun: Kashbad taldearekin batera emandako lehen pausoei azaldu zen Sorkun musikaren plazan. Gerora, Fermin Muguruzaren alboan buruturiko ibilbide oparoa, hainbat musikari eta taldeekin kolaborazioak edo bakarka (taldearen laguntzaz), eginiko bi diskoak, Sorkun gure herrian den musikaririk begikoena eta estimatuena da.

THC: Gure inguruko talde ez ohikoa. Nork esan du Euskal Herrian rocka bakarrik egiten dela? Azken urteetan ideia horretara kontrajartzen den artista eta talde bat baino gehiago eza gutu dugu gure inguruan. Eta multzo txiki horren barruan sar genezake Iruñea ingurutik datorren talde hau. Taula gainean agertzen diren 7 lagunek



gaitasun ederra dute funk doinuak house eta drum & bass erritmoekin nahasteko, hip-hopa, jazz, perkusio afrikarrak eta ukitu latinoak albo batera utzi gabe gainera.

Morodo & Ranking Soldiers: Ruben "Morodo"-k gauza asko ditu esateko. Jamaikar toaster edo festa animatzaileen antzera, musikaren bidez espresatzen da eta sound systemak izan dira bere hitzen bozgorailu. Oso gazte zela, Madrilgo Alameda de Osuna auzoko OZM taldearekin hasi zen erri-matzen. Disko hartan, auzoko hip-hop giroa da nagusi baina dagoeneko,

jamaikar musikaren eragina nabari zaio. Reggae kutsu horrek indar handiagoa hartuko du bigarren diskoan, "Cosas que contarte" izenekoan.

Berri Txarrak: Inolako dudarik gabe, 2006 urte hau Berri Txarrak taldearen urtea izango dela esan daiteke. Hirukote moduan aurrera egin eta Gor diskoetxe nafarrarentzat "Jaio.musika.hil." diskoa argitaratu ondoren, zalan-tza guztiak argitu dira.

Betagarri: Gasteizko talde kementsu honek orain arteko bidea behe-behetik egin du. Inork gutxi hainbeste lagunez osatutako eta haizezko instrumentuekin bultzatutako talde honetan sinesten zuenean, beraiek aurrera egin zuten pazientzia eta konbentzimenduz.

Sarrerak aldeztu aurretik
Ardi Beltz sagardotegian salgai

Sarrerak, aldeztu aurretik, Ardi Beltz sagardotegian salgai. Egun bakoitzeko, 21 euro. Takilan bertan, 24. Bi egunetarako bonoa, 36 euro.

Sagardoa, musika... eta desafioa

Martxoaren 19an jokatu da Sagarrondotik jaialdiko herri kirol lehia Urnietan

Musika eta sagardoa. Horiexek dira Sagarrondotik jaialdiko osagai nagusiak. Gehien nabarmendu ohi diren ezaugarriak. Baina bada beste ekitaldi erakargarri bat ere. Denboraren poderioz, Sagarrondotik jaialdiko saltsa eta piperran bilakatu den ekitaldia. Bereziki, Urnietan, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo herri kirol zaleentzat. Sagarrondotik jaialdiko herri kirol lehiaz ari gara hizketan. Aurtan, hirugarrenez jokatu da desafioa. Martxoaren 19an, 11:00etatik aurrera, Urnietako frontoian. Irudian ageri den moduan, Usurbilgo taldea gogor ari da lanean.



AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN JO ETA SU ARITU DIRA DESAFIDOA PRESTATZEN.

Iaz hirugarren izan zen Usurbilgo taldea

Iaz urnietarrak nagusitu ziren Sagarrondotik jaialdiko herri kirol desafioan. Sagar biltzen eta garraiatzen, harria jasotzen, txingalasterketan, lokotx-bilketan eta sokatiran lehenak izan ziren urnietarrak. Bigarren tokian Astigarragako taldea geratu zen, ingudearekin eta gizon proban marka onena lortu eta gero. Hirugarren tokia usurbildarrentzat izan zen, eta laugarrena, Hernaniko taldea.



IAZKO LANA HOBETZEKO GOGO-BIZIZ DIRA GURE ORDEZKARIAK.

Aurtengo ordezkaritza

Txingak: Juan txo Zuriarrain, Iker Portularrume.

Harri jasotzen: Arkaitz Portularrume.

Gizon proba: Mikel Orbegozo, Mikel Aranburu.

Lokotxak: Rosa Uribe, Koldo Lertxundi.

Ingudea: Xabier Orbegozo.

Zakua: Mikel Soroa, Jon Lizaso, Kepa Unanue.

Sagar biltzea: Joseba Larburu.

Sokatira: Josune San Sebastian, Jose Luis Bruño, Iñaki Errekondo, Aitziber Unanue, Arkaitz Portularrume, Joseba Larburu, Jon Lizaso, Mikel Soroa.

Martxoaren 19an, herri kirolak eta sagardoa bateginik

Martxoaren 19a desafioaren Meguna izango da. Urnietan jokatu da herri kirol saioa. Baina sagardoa ere protagonista izango da. Goizeko 10.00etatik aurrera, Urnietan jai giroan murgilduko da sagardo dastaketaren hasierarekin. Sagardotegi desberdinetatik ekarritako botilak dastatzeko aukera izango da.

Kale animazioa ere goizeko lehen ordutik hasiko da; karrikak jai giroaren pare jarritz dultzaineroekin batera. Sagardo dastaketa gutxi balitz, Buruntzaldeko artisauen lanak ere erakusgai jarriko dira.

Gainera, txahal oso baten erretzea ikus ahal izango dugu. Eguerdian, dastatzeko emango den txahala. Egun paregabea, paraje ezin hobean, giro itzelean... eta guztia edalontzia erostearen truk.

Herri kirol lehian osatu beharreko lana

Martxoaren 19an Sagarrondotik jaialdiaren azken egunean egingo da herri kirol lehia. Goizeko 11:00etan hasiko da Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Usurbil arteko desafioa. Iaz bezalaxe, Urnietako kiroldegian jokatu da herri kirol dema. Aurreko bi desafiok bezalaxe. Bietan jendez lepo eta sekulako giroa kirolarien ahalegina txalotzeko. Kanpoan negu giroa, Urnietako frontoian udako sargori giroa, bero-beroa. Zalantza izpirik egon ez dadin, Herri Kirol Federazioko epaileek zainduko dute batzuen eta besteen lana. Hau da talde denek osatu beharko duten lana.



IAZ USURBIL ORDEZKATU ZUEN TALDEA. HIRUGARREN IZAN ZIREN.

Sokতিরাকো lehen tiraldia

Ligila bat denen artean tiraldi bate-ra, denborak hartuaz. Hemendik finala eta 3. eta 4. arteko tiraldia aterako litzateke. Herri bakoitzeko 8 lagun (tartean gutxienez neska bat) eta laguntzaile bat. 2,5 metroko distantzia, gainditu beharrekoa.

Sagar iltzatzea

Sagarrak lurrean daudela, kizkiekin zesto batera bildu eta zestotik zakura. Zakua itxita 25 metro garraiatu behar da. Zein taldek denbora gutxienez proba osatu. Herri bakoitzeko bi lagun (tartean emakumezko bat).

Ingudea

Minutu batean, 18 kiloko ingudea zein taldek gehiagotan goiko txapan jo. Herri bakoitzeko lagun bat eta laguntzaile bat.

Harri jasotzea

3 minututan zeinek altxaldi gehiago egin 70 kiloko harriarekin. Lagun bat herri bakoitzeko.

Giza proba

2 lagun herri bakoitzeko. Zein taldek plaza gehiago egin 4 minututan, lagun batek gomazko gupil bat katekin tiraka, beste laguna gupil gainean duela.

Txingak

50 kiloko 2 txingekin, 3 minututan zeinek plaza gehiago egin. Taldeko bi lagun.

Zaku lasterketa

3 lagun herri bakoitzeko. Zeinek denbora gutxienez 50 kiloko zakua

plazaren alde batetik bestera eraman lagun bakoitzak hiru joan-etorri eginda.

Lokotxak

Ahal den denbora gutxienez 25 lokotxa bildu behar dira.

Herri bakoitzeko bi lagun.

Sokতিরা finala

Lehenik 3. eta 4. gelditu direnak tirako dute. Ondoren finala bi tiraldietara izango da denborak hartuaz.

Puntuazio sistema

Proba bakoitzeko lehena: 4 puntu. Proba bakoitzeko bigarrena: 3 puntu. Proba bakoitzeko hirugarrena: 2 puntu. Proba bakoitzeko laugarrena: 1 puntu. Proba bukatu ezean: 0 puntu.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA T3
943 360 400

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 • ASTEASU
© 943 69 68 52 • 620 800 186

Antzerkirako sarrera guztiak agortuta

Ez dago sarrerarik. Alperrik egingo duzu NOAUA!rako bidea. Sutegiko auditorioa mugatua da, 158 eserleku baino ez. Gainera, Udala eta Kutxarekin batera antolatu dugunez, musu-truk banatu ditugu antzerki saiorako gonbidapenak. Sarrera eskuratzeko garaiz ibili direnak, komedia kutsuko antzezlan batekin gozatzeko aukera izango dute Sutegin.

Iker Galarza eta Joseba Usabiaga dira "Erreleboa" antzezlanaren aktoreak. Lehen emanaldia Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketan eskaini zuten eta lehen saioarekin lehen saria eskuratu zuten. Martxoaren 17an, ostirala, gaueko 22:30etik aurrera Sutegiko auditorioan izango dira.



JOSEBA USABIAGA ETA IKER GALARZA ANTZEZLANEKO AKTOREAK.

Erretzeari bai ala ez, baina euskaraz

Tabakoaren legea dela eta, taberna, jatetxe, kafetegi, sagardotegi... eta saltoki guztietan erre daitekeen edo ez erabaki behar izan dute. Honen harira, Usurbilgo Udaleko Euskara Zerbitzuak, UEMAekin batera, "Erre daiteke" eta "Ezin da erre" dioten euskarazko kartelak banatu ditu herriko ostalaritza establezimenduetan. Nola ez, "Erre daiteke" dioena izan da arrakasta gehien izan duena.

Usurbilgo Udaleko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, guztira 45 establezimenduri galdetu zaie bertan erre daitekeen edo ez, egokitzen zaien euskarazko kartela bidali ahal izateko.

Euskarako txartel hauek 27 saltokitan ipiniko dira

Euskarazko kartelak jarriko dituzten establezimenduak, guztira, 27 izango dira. Euskara hutsezko kartelak jarriko ez dituztenek, arrazoi



KANPAINA HAU BURUTZEKO 45 ESTABLEZIMENDUREKIN JARRI DIRA HARREMANETAN.

ezberdinengatik ez dituzte jarriko: batzuekin ezin izan da hitz egin, beste batzuek dagoeneko txartel elebidunak badituzte eta bakarren batek kartelik ez duela jarri nahi adierazi du.

Euskarazko kartelak jarriko dituzten establezimendu horietan hauek dira emaitzak:

- "Ezin da erre": herriko establezimendu bakar batek eskatu du "Ezin

da erre" dioten kartela.

- "Erre daiteke" kartela: 15 establezimenduk eskatu dute.

- Gainerako 11 establezimenduk "Erre daiteke" eta "Ezin da erre" dioten kartelak eskatu dituzte, biak, alegia. Zalantza batean izango ote dira oraindik?

IMANOL UBEDA _____

Yolanda Arrietarentzat Euskarazko Antzerkigile Onenaren Max saria

Martxoaren 13an banatu ziren Arte Eszenikoen Max sariak Bartzelonan. Yolanda Arrietak Euskarazko Antzerkigile Onenaren saria jaso zuen “Groau!” lanarekin. Aitzpea Goenaga (“Euskararen zazpi bekatu nagusiak”), Emilio Fernandez (“Txaribari”) eta Anartz Zuazua eta Klaus Groten (“Bizitza lorontzian”) zuzendariak ere hautagaien artean ziren baina Yolanda Arrieta izan zen saritua.

Katu baten istorioa

Katu baten istorioa da “Groau!”. Baina ez katu arrunt batena. Miau egin beharrean karraska egiten baitu. Musikaz lagundurik, bidaia bitxian eta hunkigarrian murgiltzen ditu haurrak “Groau!” antzerki emanaldiak. Ipuin herrikoien egitura borobila jarraituz, katutxoaren bizipenak eta sentipenak taula gainean antzeztu ditu Hika teatroa taldeak. Lan honi esker jaso du Yolanda Arrietak Max saria.

“GROAU!” ANTZEZLANA

“Katutxo baten inguruko antzeztan hau Hika teatroa taldeak taularatu zuen”

Ez zen, ordea, Euskal Herrira iritsi zen sari bakarra izan. Euskarazko Antzerkigile Onenaren saria Yolanda Arrietarentzat izan zen baina errebelazio saria “Nasdrovia Chejov” Vaiven



SARI GARRANTZITSUA ESKURATU BERRI DU YOLANDA ARRIETAK.

Produkzioak etxearen antzeztanarentzat izan zen. Abenduan antzeztan hau ikus ahal izan genuen Sutegin.

Bi liburu aurkeztu zituen Durangoko Azokan

“Groau!” liburua 2004koa da. Geroztik, lan gehiago idatzi ditu Arrietak. Durangoko Azokan bi liburu aurkeztu zituen. “Astebeteko kontuak” liburua, haur eta gazteei zuzendua; eta “Gatzaren atzetik”, bere lehen saiakera liburua.

Bizkaitarra jaiotzez, Usurbilen bizi da Yolanda Arrieta. Bereziki, haur eta gazte literaturan nabarmendu da baina nobela bat ere badu argitaratuta eta azken boladan prentsan ere badabil (Berrian zutabegile).

“Groau!” ere bada liburuan

Egilea: Yolanda Arrieta.

Argitaletxea: Aizkorri, SM.

Haur literatura, 2004.

Liburuaren haria: “Nor ez da, behin edo behin, haurra izan eta tximinoa dela pentsatu, katua izan eta txotxongilo gisa ikusi

bere burua? Bai, hau katu baten istorioa da. Katakume txiki, nerabe eta gazte baten istorioa. Baina ez da katu arrunta batena. Ile beltz-beltza, indar gutxi, gorputz txikia eta ahots bitxi-bitxi bat: miau egin beharrean karraska egiten du”.

CAF-Elhuyar sariak banatu berri dira

Lehengo ostiralean, martxoak 10, CAF-Elhuyar zientzia dibulga-zioko XII. sari banaketa egin zen Usurbilen, Elhuyarko egoitzan. CAFek tren bagoiak egiten ditu, eta aurren, sariketako lehen saria burdinbideari buruzko artikulu bati eman diote. Hiba Unzueta gaztea izan da “Burdinbideen iraultza” lanaren egilea. Trena garraiobide lehiakor eta moderno bihurtzeko hainbat alorrean egiten ari diren garapen eta berrikuntza lanak hartu ditu hizpide artikuluan. Bigarren saria Estibaliz Arbelaitez jaso zuen. “Zaharrak berri” artikuluan garai bateko bizimodu eta jardunaren ondare diren zuhaitzei buruz aritu da. Eta hirugarren saria Eider Bilbao eta Ibon Cancioarentzat izan da. “Arrainak, geneak eta txipak: kutsaduraren aurrean adierazteko askatasuna” lana saritu diete. Gazteentzako saria Igor Aristegik jaso du, “Maite haugu, zorion” lanagatik.

Gaixotasun larria du Joxe Domingo Aizpuruak

Joxe Domingo Aizpurua euskal presoak gaixotasun larria dauka. Hala diagnostikatu diote medikuek. Gaixotasun larri hau dela eta, abokatuak Joxe Domingo askatzea eskatu du.

Domingo Aizpurua usurbildarra azterketa medikua egitera eraman zuten joan zen hilean Fresneseko ospitalera, eta han atzeman zioten gaitza. Medikuaren agiriaren arabera, «pronostiko erreserbatuko gaixotasuna du». Agiri horretan oinarrituta eskatu du abokatuak Joxe Domingo Aizpurua aske uzteko. Mediku espezialista batek azterketa zehatzagoa egin diezaion zain dago, bitartean, usurbildar presoak. Askatasunak eskatu du, ohar berean, Aizpuruaren ego-

era berdinean diren euskal preso politikoak askatzeko, gaixotasunek behar dituzten tratamendu egokiak izateko. Askatasunaren ustez, «oso larri dauden euskal preso politikoek aske behar dute egon, haien osasun egoera gehiago makurtu gabe».

Patxi Segurola ere, gaixo

Ez da erietxetik pasa den preso bakarra izan. Patxi Seguroleri ere, orain dela gutxi egin diote ebakuntza.

Bestetik, Jokin Errasti eta Oihana Lizasoren epaiketa bigarren aldiz atzeratua izan da. Oraindik ez zaio epaiketari datarik jarri. Irailaren 30ean lau urte beteko dira atxilotu zituztenetik eta oraindik epaitu gabe jarraitzen dute Jokinek eta Oihanak.



BIGARRENEZ ATZERATU DA JOKIN
ETA OIHANAREN EPAIKETA.

Martxoaren 19an, jubilatuen arteko bazkaria

Martxoaren 14an hasi zen Jubilatuen Astea. Ostegun honetan, Alicia Magdalena Lope medikua izango da Sutegira hurbilduko den hizlaria. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da hitzaldia. Martxoaren 19an egingo den bazkariarekin amaituko da Gure Pakeak antolatu duen astea.

Martxoak 16, osteguna
“Artrosis eta Osteoporosis”. Alicia Magdalena Lope, medikuntzan lizen-

tziatua. Hitzaldi-solasaldia Sutegin egingo da, arratsaldeko 17:30ean.

Martxoaren 19an bazkaria

11:30ean, hildako jubilatuen ome-nez Meza Nagusia parrokian.

14:30ean Saizar sagardotegian bazkaria. Prezioa: 28 euro. Izen ematea eta txartelak jasotzea Gure Pakeako bulegoan, 10:00etatik 13:00era, martxoaren 16a bitartean.

Antolatzailea: Gure Pakea.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Azken saioan, 61 lagun hurbildu ziren odola ematera

Martxoaren 6an, odol-emai-leek hitzordu berria zuten. 61 kidek eman zuten odola, eta hauetatik hiruk lehen aldiz.

Arazoi ezberdinak medio, odol ematera hurbildu eta azkenean odola eman ez zutenei ere eskerrak eman nahi dizkie Odol Emaileen Elkarteak. Noski, baita odola eman zutenei ere.

Hurrengo txanda maiatzaren 8an izango da.



Etorkizun handiko txistulariak

Lehenengo astean iragarri bezala, Zumarte Musika Eskolako bi ikasle Donostiako Txistulari Bandarekin jotzeko aukera izan dute. Martxoaren 12ko jaialdia nekez ahaztuko dute Aitor Pagolak (goiko irudian) eta Salvatore Arrutik (beheko irudian).

Zumarte Musika Eskolako kideek esan digutenez, Donostiako Konstituzio Plazako kontzertua oso ondo joan zen eta ikasleek maila ona erakutsi zuten.

Zumarte Abesbatza

Lezon arituko da apirilean

Apirilaren 2an IV. Akordeoi Topaketa ospatuko da Lezon. Han izango da Zumarte Abesbatza.



Autoestima tailerra

Santuenea elkartean

Santuenea Kultur Elkartek sbizia eman dio auzoari. Zabaldutik hona, ekitaldi asko bildu ditu bere baitan. Martxoaren 13rako, "Lehenengo laguntzak" sorospen ikastaroa iragarria zegoen. Hilaren 27an, aldiz, autoestimaren inguruko tailer batean parte hartzeko aukera izango da.

"Batuetan ez esateak lagundu egiten digu". Hori da iragarri den ikastaroa laburbiltzeko lelo egokia. Autoestimaren inguruko tailerra egun bakarrean egingo da, martxoaren 27an, eguerdiko 14:45ean hasi eta 16:15ak bitartean.

Jose Luis Zumetaren lan berriak, Donostiako Arteko galerian ikusgai

Secundino Esnaola kaleko egoitza utzi eta Gros auzoko Iparragirre kaleko laugarren atarian dago orain Donostiako arte galeria hau. Ignacio Langer arkitektoak diseinatu du inauguratu berri den egoitza. Arteko arte galeriak, gainera, hamar urte bete ditu eta urteurrena modu berezian ospatuko dute. Altsasuko Dora Salazarren eta Usurbilgo Jose Luis Zumetaren azken lanak izan dira Arteko galerian erakusgai jarri dituzten lehen lanak.

Zumetaren lanak Arteko behin baino gehiagotan izan diren arren, bakarkako lehen erakusketa da haxe. Galeriako arduradunen esanetan, inoiz baino kolore biziagoak erabili ditu Zumetak.

Apirilaren 22ra arte ikusgai

Erakusketa jada zabalik dago. Apirilaren 22ra arte bisita daiteke, astelehenetik larunbatera; goizez, 11:00etatik 13:30era, eta arratsalde, 17:00etik 20:30era.



IZENIK GABEKO SERIGRAFIA,
ARTEKO GALERIAN JASOA.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10.
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Martxoaren 25ean, NOAUA!ko bazkideen Batzar Nagusia

Urtean behin besterik ez bada ere, garrantzitsua da bidean geldialdi bat egin eta etxeko kontuak astintzea. 1996an argitaratu zen NOAUA!ko lehen alea eta, berriki, astekarirako jauzi garrantzitsua eman dugu. Beraz, aztertzerik bada.

2005 urteak utzi duena aztertu eta 2006ak ekar dezakeena aurreikusteko garaia iritsi da. Honetan guztian gure elkarteko bazkide zaren horrek baduzu zeresanik. Hau dela eta, NOAUA!

Kultur Elkartearen Batzar Nagusira etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizugu. Besterik gabe, batzarrean parte hartzera animatzen zaituztegu, gure proiektua guztiona baita, 525 bazkideona.

Martxoaren 16an,
film laburrak Sutegin

Martxoaren 16an 'Txotx', 'Sarabe', 'Haragia', 'Hauspo soinu' eta '40 ezetz' film laburrak ikus ahal izango ditugu Sutegin. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da emanaldia.



AURTEN ERE NOAUA!KO
EGOITZAN EGINGO DA BATZARRA.

Sarrerak, 3 eurotan salgai NOAUA!ko egoitzan eta Txirristan (baita martxoaren 16an proiektzioaren egunean bertan ere, Sutezikotakilian).

Kultur Elkarteko egoitzan bertan egingo da batzarra

Eguna: Martxoak 25, larunbata.

Ordua: Lehenengo deialdia, 10:15ean.
Bigarren deialdia, 10:30ean.

Tokia: NOAUA! Kultur Elkartearen egoitza (Bordaberri 3, behea).

Gai-zerrenda:

- 1.-2005ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2.-2006ko egitasmoak eta aurrekontuak.
- 3.-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- 4.-Galderak / erantzunak.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak”... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____

1. Abizena: _____

2. Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefona: _____

E-posta: _____

Kontu Korronea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.



Nesken kirol taldeak osatzeko zailtasunak

Nerabazarora heldu eta eskolako kirol jardueren garaia amaitzen denean neska askok kirola egiteari uzten diotela gauza jakina da. Hala ere, gaur egun taldekako kirola alde batera utzi eta aerobio moduko bakarkako kirola egitera pasatzen dira, baina horrek arazoak sortzen ditu kirol desberdinetako taldeak osatzeko. Aurtengo denboraldian, adibidez, bi dira kirol federatuen Usurbilen ditugun nesken taldeak: senior mailako futbol taldea eta kadete mailako eskubaloia taldea.

10 urte pasa dira Usurbil Futbol Taldeko nesken ekipoa sortu zenetik. Urtebetez Kontxako hondartzako txapelketan jokatu ondoren futbol zelai handiko taldea ateratzea erabaki zen 1996-1997 denboraldian eta orduz geroztik urtero parte hartu izan du Usurbilek Emakumezkoen Ligan.

Asko aldatu da taldea 10 urte hauetan. Herriko neska ugari jokatu izan dute bertan eta hasiera hartako jokalarietatik Aitziber Aranberri, Amaia Zumeta, Aroa Alkorta eta Lur Etxeberria dira taldean mantendu diren bakarrak. Izan ere, adin beretsuko neskak ziren hasierako talde hartakoak, baina egungo taldean 26 urte ditu zaharrenak eta 16 gazteenak.

Udarregi ikastolako Eskola Kirola izan da talde honen iturria 10 urte hauetan. Urte batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago, 15 urtetik aurrerako neskak Haraneko futbol zelaian jokatzeke prest azaldu izan dira. Txarrak edo onak izan, neska guztiek futboleko jokatu ahal izateko ateak zabalik izan dituzte beti, baina azken bi urteetan etenaldi bat izan da eta taldea osatzeko arazoak izan dituzte.

Usurbilgo futbol azpiegitura txarrak ez du askorik lagundu. Izan ere, azken bi urte hauetan infantil eta kadete mailako nesken Futbol 8 txapelketak sortu ditu federazioak, baina Harane futbol zelaian behar beharrezko azpiegiturarik ez dagoenez Usurbil Futbol Taldeak ezin izan du ahaleginik egin arlo horretan. Honela, futboleko jokatu nahi duen 15 urteko neska gazteak bera baino zaharra goen kontra jokatu behar izaten du eta ez da batere erraza izaten.



IRUDIAN, ESKUBALOI TALDEKO GAZTEAK.

Eskubaloian, berriz, azken urteetan kirol federatuen talderik izan ez badute ere, berriz ere pixkanaka-pixkanaka indartzen ari da nesken eskubaloia. Atzean gelditu dira Usurbil Kirol Elkartek kadete eta jubenil mailan, nahiz senior mailan taldeak zituen garai haiek, baina Eskola Kirolean dituzten taldeei begirada bat emanez gero berpizte bidean da nesken eskubaloia.

Herriko neskez bakarrik osatutako taldea ari da lehian kadete mailan. Iazko denboraldian Urrietako neskekin batera osatu zuten ekipoa, baina Eskola Kiroleko infantiletatik igotakoekin aurten ez dute horrelako arazorik izan. Eta maila polita ematen ari da, gainera, Nerea Agudok zuzendutako taldea. Gipuzkoako Txapelketako azken fasea jokatzeetik gertu gelditu ziren, eta ondoren, Federazio Txapelketan lehen postua lortu zuten.

Datorren urtera begira, kadete mailako talde hau mantentzeko ez dute arazorik izango. Eskola Kirolean Udarregi ikastolak infantil mailan talde indartsua du. Jokaturako 10 partidak irabazi dituzte eta datorren denboraldian jokari hauetatik asko kadete mailara igoko direnez taldea aterako dutela ziurtatuta dago. Kadete mailatik jubenil mailara igotzen diren neskek, ordea, maila honetan ekipoa osatzeko zailtasunak izango dituzte.

JOSU ARANBERRI

5. postua 1. Territorial mailako taldearentzat

Usurbil Kirol Elkarteko 1. Territorial mailako taldeak 5. postua eskuratu du azkeneko Gipuzkoako Txapelketan. Pasa den asteburuan Oiardon jokatu zuten ligako azken partida eta 26-32 galdu zuten ITE Hondarribia taldearen aurka. Bestalde, jubenil mailako mutilen taldeak ligako lehen neurketa galdu zuen Arrasaten. 30-25 izan zen azken emaitza eta Gipuzkoako Txapelketa eskuratzeko bidea okertu egin zaie. Bestalde, kadete mutilen taldeak 24-24 berdindu zuen Bidasoa-Irunen aurka.

Zigor gogorra Iñaki Errastirentzat

Euskal Autonomia Erkidegoko E instrukzio epaileak zigor gogorak proposatu berri ditu Iñaki Errasti aginagatarra eta Astilleroko gainerantzeko arraunlarientzat, Hondarribiko doping kontrolaren inguruko auzian. 6.010 euroko isuna eta bi urtez EAEn antolatutako probetan parte hartzeko debekua proposatu berri dute eta zigorra behin betikoa dela erabakitzen badute arraunlari hauek ezingo dute bi denboralditan Bizkaiko eta Gipuzkoako estropadetan parte hartu.

Aholkua !!

Ikusmena eta ordenagailua: etenak eta ariketak

Ordenagailua gero eta gehiago erabiltzearen ondorioz, ikusmeneko arazoak ere ugalduz doaz: begietako mina, buruko mina, ikuspen lausoa... hamaika dira aspaldian bulegoetako enplegatuen gaitz bihurtua den ordenadore-ikuspenaren sindrome horren agerpenak.

- Ez eman ordenagailu aurrean lanean ordubete baino gehiago. Hori ezinezkoa bada, egin etenaldi asko, bost minututik bost minutura. Etenaldi horietan begiratu urrutiko zerbaiteira 20 segundoz.

- Lanean erabili testu beltza hondo zuriaren gainean. Ahal dela, ez erabili kolore gehiegi.

Kokapena

- Jarri monitorea 50/60 zm-ra.
- Okertu monitorea behearantz, zure zuzeneko begiradarekiko 20 graduko angeluan.

Kontuz argiarekin

- Instalatu pantaila leihoari perpendikular; inola ere ez aurrez aurre, begiak altxatzean itsutzea gerta baitaiteke, ezta leihoari bizkar emanik, argi naturala pantailan islatzen baita, ezinbestez.

- Saiatu monitorea edo mahaiko lanpara argi-iturri bakarra izan ez dadin. Baliatu giroko argitasuna: horrela, argitutako eremutik kanpo begiak ate-



ratzean ez dituzte zeharo bestelako argitasun-gorabeherak nozituko.

- Erabili islapen kontrako tratamendu berezia edo berariazko filtroa duen monitorea. Kontuz filtro horrekin, pantaila ilunegi uzten badu.

Eguneko goardiako farmaziak

Martxoak 16, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 17, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 18, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Martxoak 19, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Martxoak 20, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 21, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 22, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Martxoak 23, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 24, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 25, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 26, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/9:30(T)/13:15(T)/
14:35*(T)/19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15*/9:00/12:45(T)/
13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T)/12:45/
15:15(T)/21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T)/14:30(T)/21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/13:30(T)/15:30(T)/
21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/13:00(T)/15:00(T)/
21:00(T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia
Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40	09.05	09.25	
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40		10.05	10.25
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40		11.05	11.25
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40		12.05	12.25
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40		13.05	13.25
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40		14.05	14.25
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiara

Harremantarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia
Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05		08.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05		09.30
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiariak dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremantarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07*	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Ez da Usurbilen geratzen

Harremantarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Agenda

Martxoak 16, osteguna

- "Artrosis eta Osteoporosis". Alicia Magdalena Lope, medikuntzan lizentziatua. Hitzaldi-solasaldia Sutezin egingo da, arratsaldeko 17:30ean.

- Film laburren proiektzioa. 20:00etan Sutezin. Antolatzailea: NOAUA!

Martxoak 17, ostirala

"Erreleboa" antzezlan, 22:30ean Sutezin. Sarrera guztiak agortuta.

Martxoak 19, igandea

11:30ean, hildako jubilatuen omenez Meza Nagusia parrokian.

14:30ean Saizar sagardotegian bazkaria. Prezioa: 28 euro.

Literaturaren txokoa



Minbiziari buruzko kronika bitxia

Lotsaz, beldurrez, ohitura-faltaz isiltzen ditugun kontu horietakoa da berez, baina Joxe Aranzabalek bere burua biluzik erakustea erabaki zuen, gauzak naturaltasun osoz kontatzea, eta horren ordaina elkartasun-uholde bat izan zen.

Liburuak kontatzen duen historia Sustatu webgunean jaio zen, 2002ko irailaren 15ean, Joxe Aranzabal gai-



xotu eta lau egunera. Egun hartan, Joxek argitaratu zuen bere mezuetan lehena izango zena, "Medikuak esan dit minbizia dudala", eta izena eman diona liburuari ere. Zenbaiten ustez, mezu hark mugarri bat ezarri zuen euskal kazetaritzaren historian, ordura arte inoiz jorratu gabeko esparru bat hasi baitzuen. Gerora etorriko ziren beste 16 mezu, bi urtean zehar idatziak. Eta liburuak denak jasotzen ditu, mezu bakoitzak eragindako erantzunik esanguratsuenekin batera.

Telefono interesgarriak

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia.....943 36 20 13
- Udarregi Ikastola.....943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiarde kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A.943 46 46 22
- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

Egin kontu

Ikastaro gehiago KzGunean

Martxoaren 20an, Internet Mikastaro berri bat hasiko da KzGunean (Kale Nagusian dagoen egoitzan). 20an hasi eta martxoaren 31 bitartean, oinarritzko ezagutzak ikasteko aukera izango da.

IT txartela

IT txartela eskuratzeko azterketa martxoaren 17an egingo da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Arratsaldez zabalik

KzGuneak martxoan arratsaldez jarraituko du zabalik. Astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara.



ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatu nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile alokatzen ematen da. Bi logela dauzka. Hondartza gertu. Guztiz jantzitza, terraza eta jardina. Aste santurako, pazkoa eta udarako. Merkea. Camping La Civelles 3***. 665 734009 edo 685721652

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztelaraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zer-baitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Pertsona bat behar dugu astelehenetik ostiralera eta 12:00etatik 17:00etara jatetxe bateko sukaldeko garbiketarako egiteko. Interesatuak deitu 664471766 edo 661955920 telefonora.
- 4 urteko umea zaintzeko norbait behar dugu. Goizean ikastolara eramateko eta eguadirako. Gida baimena eduki behar du. 675007048
- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarrera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44. Ordutegia: astelehenean, 13:00etik 16:30era. Asteartetik ostegunera, 13:00etik 16:00etara. Ostiralean, 13:00etik 16:00etara eta 20:00etatik 00:00etara. Larunbatean, 07:30etik 12:30era.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Andoingo Zine eta Bideo Eskolak 7 laburmetraia egiteko aktoreak behar ditu euskaraz zein erdaraz. 667886414 telefonora deitu (Miren).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazuarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginatke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Pasa den astean haur bufanda bat galdu da. Urdin iluna eta bi marra txuri ditu. Ikastolatik plazarako bidean galdu da. Bilatu duenak 943370420 telefonora deitu. Mila esker.
- Graduatutako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukalde. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosi nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!ra ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan

Urte askotarako

Joseba! Zenbat erori zaizkik? Hemen behintzat majo hago, beti bezain gazte! Martxoaren 19an hire zain egongo gaituk Bentan.



Beti bezain alaitsu eta poxpolin herriko nexkatxa politena. Martxoaren 20an oso ondo pasa. Zorionak Ainhoa!



Zorionak Joseba!

Martxoaren 19an bizikleta eta guzti ea herrira azaltzen haizen, belarritik tira behar diagu eta.



HILDAKOAK

- Inaxio Lizaso Zarauz

Martxoaren 10ean hil zen
77 urte zituela.
Villa Pakita etxea.



JAIOTZAK

- Ainara Lopetegi Estevez
Martxoaren 6an.

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

PSU

943 371 954
UGALDEA POL.36-2- USURBIL

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

ITURGINTZA

JOSEBA
ARANGUREN

☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com



Lehiaketa

Urte asko pasa eta gero, berriz elkartu dira
 Niko Etxart eta Hapa-Hapa taldea. "Minuette"
 da elkarlanaren emaitza. Disko bat zozketatu
 nahi dugu gure irakurleen artean.
 Niko Etxarten azken argitalpena eskuratu nahi
 baduzu, bidali e-posta erredakzioa@noaia.com
 helbidera eta martxoaren 25an egingo dugun
 zozketan hartuko duzu parte. Animo!



Bidali e-maila erredakzioa@noaia.com.

Postaz Bordaberri 3 Eguzkitzaldea -20170 USURBIL (Gipuzkoa).

N U

Kultur Elk rt k zk n tz r N us

G -z rr n

1.-2 5 k m m r t
 l ntz k n mk .

2.-2 k t sm k
 t urr k ntuk.

3.-Zuz n rtz
 tz r r n s k t
 t n r n .

.-G l r / r ntzun k.

E un

M rtx k 25, l run t .

r u

L h n n l , 1 15 n.
 rr n l , 1 3 n.

T k

N U Kultur Elk rt r n tz n
 { r rr 3, h }

lk rt n u .c m • r rr 3, E uzktz l . 2 17 USU IL

Noaia!!

ORAIN HERRIA ORAIN BAKEA

MAR20
astelehena

20.00tan **Txartel Pegaketa**

MAR21
asteartea

20.00tan **Kotxe karabana**

MAR22
asteazkena

19.30ean **Hitzaldia**
(proposamenaren aurkezpena), mahaikide bat

MAR24
ostirala

20.00tan **Manifestazioa** frontoi atzetik abiatuta

MAR26
igandea

12.30ean **Ekitaldi Politikoa** Hernanin

MAR28
asteartea

13.00ean **Plenoa**

